




JOKABIDE KODEA LKS NEXT TALDEA

ARRASATEN (GIPUZKOA)


2020ko urriaren 2an



LKS
Next

ÍNDICE

| | |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| 1. SARRERA ETA APLIKAZIO EREMUA | 5 |
| • 1.1. Xedea eta printzipio orokorra | 5 |
| • 1.2. Aplikazio eremua eta betebeharra..... | 6 |
| 2. JOKABIDE ARAU OROKORRAK | 6 |
| • 2.1. Jokabide profesional osoa izatea | 6 |
| • 2.2. Kudeaketa bikaina..... | 8 |
| • 2.3. Errespetua legezketasunari eta LKS NEXT TALDEA lotzen duten barneko arau eta kontratuei | 8 |
| • 2.4. Objektibotasuna..... | 9 |
| • 2.5. Interes gatazkak | 9 |
| • 2.6. LKS NEXT TALDEAREN irudia eta ospea sustatzea..... | 10 |
| 3. PERTSONAK | 10 |
| • 3.1. Pertsonak errespetatzea | 10 |
| • 3.2. Haurren lanaren debekua eta adingabeen babesa | 11 |
| • 3.3. Atzerritarren babesa | 11 |
| • 3.4. Aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza | 11 |
| • 3.5. Langileen hautaketa etikoa | 11 |
| • 3.6. Interkooperazioa eta talde lana | 12 |
| • 3.7. Talentuaren kudeaketa | 12 |
| 4. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA..... | 13 |
| 5. INFORMAZIOAREN KUDEAKETA..... | 13 |
| • 5.1. Intimitatearen babesa. Datu pertsonalen erabilera..... | 13 |
| • 5.2. LKS NEXT TALDEAREN aktibo eta baliabideen erabilera arduratsua..... | 14 |
| • 5.3. Segurtasun informatikoaren eta jabetza intelektual eta industrialaren babesa... | 14 |
| • 5.4. Informazio konfidentzialaren tratamendua eta babesa | 15 |
| 6. MERKATUAREKIKO ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKO EKIKO HARREMANAK..... | 16 |
| • 6.1. Egiazketasuna eta zehaztasuna LKS NEXT TALDEAREN ondarean | 16 |
| • 6.2. Lehia askearen, merkatuaren eta kontsumitzaileen babesa | 16 |
| • 6.3. Lankidetzeta eta gardentasuna Administrazio Publikoekin | 16 |



- 6.4. Hornitzaile, bazkide eta bezeroekiko harremanak..... 17

7. USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA 17

- 7.1. Ustelkeria pribatuaren eta publikoaren prebentzioa..... 17
- 7.2. Kapitalak zuritzearen eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioa 18

8. INGURUMENAREN BABESA..... 18

9. KODEA APLIKATZEA 19

- 9.1. Indarrean sartzea 19
- 9.2. Jokabide Kodearen interpretazioa 19
- 9.3. Araudia Betetzeko Batzordea..... 19
- 9.4. Ez betetzea eta Kanal Etikoari jakinaraztea 20
- 9.5. Komunikazioen konfidentziasuna eta errepresalien debekua 20
- 9.6. Komunikazioak izapidetzea 21



| Berrikuspen zk.: | Data | Berrikuspena |
|------------------|------------|-----------------------------------------------|
| 01 | 2017.11.28 | Kontseilu Errektorearen onespena |
| 02 | 2020.10.02 | Aldaketa eta Kontseilu Errektorearen onespena |
| | | |

1. SARRERA ETA APLIKAZIO EREMUA

■ 1.1. Xedea eta printzipio orokorra

1.- **LKS NEXT TALDEAREN** xedea da taldearen eta taldea osatzen dugun pertsonen jokabideak indarrean dagoen legeria eta Jokabide Kode honetan ezarritako Balioak eta Printzipio Etikoak betetzea.

2.- LKS NEXT TALDEAK Giza Eskubideekin eta laneko, ingurumeneko eta ustelkeriaren aurkako arauekin eta, bereziki, Enpresen Gizarte Erantzukizuna (EGE) sustatzeko Nazio Batuen Mundu Itunak (*Global Compact*) oinarritzat dituen printzipioekin dituen konpromisoa eta lotura adierazten ditu.

3.- Jokabide Kode hau LKS NEXT TALDEAREN Compliance Programan sartzen da, eta hau da bere xedea:

- a) LKS NEXT TALDEAREN Balioak eta Printzipio Etikoak eta jokabide jarraibideak edo arauak ezartzea, LKS NEXT TALDEAREN jardura profesionalean eta LKS NEXT TALDEKO gainerako pertsonekin, hornitzaileekin, bazkideekin, bezeroekin, administrazio publikoekin eta, oro har, gizartearekin izaten ditugun harremanetan pertsonen jokabide egokirako gida izan daitezen.
- b) LKS NEXT TALDEARI eta taldea osatzen dugun guztioi aplikatu beharreko araudi guztia betearaztea, dela merkataritzakoa, lanekoa, fiskala, administrazioakoa edo beste edozein motatakoa eta, nolatan ere, delituzko portaerak eta pertsonen beren jardura profesionalean legez kontra jokatzeko prebenitzea.

4.- Jokabide Kodearen bidez, LKS NEXTen lehendik dagoen enpresa kultura ere finkatu nahi da. Jokabide Kodeak LKS NEXT TALDEAK bere jardura gauzatzeko jarduketa guztietan bere Balioekin eta Printzipio Etikoekin duen konpromisoa jasotzen du.

5.- LKS NEXT TALDEAK ez du onartzen Jokabide Kode honen kontrako ekintzarik. Jokabide Kode honetan ezarritako Balioak eta Printzipio Etikoak benetan eta eraginkortasunez aplikatzen direla zainduko da, eta ez-betetzeak Betetze Batzordeak kudeatuko ditu Kanal Etikoaren bidez.

■ 1.2. Aplikazio eremua eta betebeharra

- 1.- Jokabide Kodean eta Compliance Programan jasotako Balioak eta Printzipio Etikoak eta Jokabide Arauak LKS NEXT TALDEA osatzen dugun pertsona guztiok nahitaez bete beharrekoak dira.
- 2.- LKS NEXT TALDEA osatzen dugun guztiok ezagutu eta bete behar dugu Jokabide Kode honen edukia.
- 3.- Jokabide Kodea Sozietate Kontrolatuei aplikatu behar zaie eta, ahal den neurrian, LKS NEXT TALDEA osatzen duten gainerako sozietateei.
- 4.- Jokabide Kodea, ahal den neurrian, LKS NEXT TALDEAREN hornitzaile, bazkide eta bezeroei zabalduko zaie.
- 5.- Jokabide Kodea, ahal den heinean, LKS NEXT TALDEAK edozein eremu geografikotan, herrialdean nahiz nazioartean, egiten dituen jardueri aplikatuko zaie.
- 6.- Jokabide Kodea LKS NEXT TALDEA osatzen dugun pertsona guztioi ezagutzera emango zaigu Harrera Planaren bidez. Plan horretan Jokabide Kodea bete beharra adierazten da.

2. JOKABIDE ARAU OROKORRAK

■ 2.1. Jokabide profesional osoa izatea

- 1.- LKS NEXT TALDEKO pertsonen jokabidea profesionaltasunean eta osotasunean oinarritzen da.
 - a) Profesionaltasuna da prestasunez, arduraz, zuhurtziaz eta eraginkortasunez jardutea. Alde horretatik, LKS NEXT TALDEKO pertsonen eta alderdi interesdunen arteko harremana portaera profesionalean oinarritzen da, eta hori honako jarduketa hauetan gauzatzen da:
 - Lege, erregelamendu eta arau profesionalak betetzen ditugu, eta lanbidearen izen ona zikindu dezakeen ekintza oro saihesten saiatzen gara.
 - Zorroztasun profesional egokiko eta erantzukizun pertsonaleko kultura sustatzen dugu, bezeroari laguntzen diona eta LKS NEXT TALDEAK ematen dituen zerbitzuen kalitatea sustatzen duena.
 - Ulertzen dugu lanak gizartean, pertsonengan eta bezeroengan duen eragin handia, eta kontuan hartzen da gure zerbitzuak egiteko orduan duen interesa.

- Gure zerbitzuak bezeroaren benetako beharretara bideratuta daude, erantzun eraginkorra emateko eta balioa emateko.
 - Konpromisoa hartzen dugu bezeroarekin eta emaitzekin, konfiantzazko eta epe luzeko erakunde bazkide diren heinean harremanak sortuz, eta elkarren onurarako helburuak partekatuz.
 - Garapen pertsonal eta profesionalean lan egiten dugu, ekarpenak egiteko gaitasuna handitzeko eta ingurunean sustatzeko.
 - Jardueraren garapenean eraginkortasuna eta errentagarritasuna zaintzen ditugu, bezeroari balioa ematearekin eta pertsonak asebetetzearekin batera, proiektua jasagarria egiteko eta indartzeko.
 - LKS NEXT proiektuari buruzko ezagutza eta konfiantza transmititzen ditugu interes taldeekin ditugun harremanetan.
 - Halaber, LKS NEXT TALDEKO kideok jarduera guztietan dugun gaitasun profesionalean oinarritzen gara. Eta horretarako:
 - ✓ Behar den arreta jartzen dugu bezero bakoitzari, bere premien arabera, bere lanerako gaitasuna eta ezagutza duten pertsonak esleitzeko.
 - ✓ Berrikuntza eta ideia berriak sustatzen ditugu, zerbitzuen eta produktuen balioa eta jarduera hobetzeko.
 - ✓ Ulertzen dugu bai langileek eta bai bezeroek gure lana estandar profesional gorenen mailan egotea espero dutela.
- b) Osotasuna da zintzo eta fede onez jardutea, jarduera profesionalean norberarekiko eta besteekiko errespetuz aritzea, eta bat dator pertsonarengan jarritako konfiantzarekin.
- Alde horretatik, LKS NEXT TALDEA osatzen dugunok zintzotasunez eta prestutasunez jokutzen dugu gure iritzi profesionalekiko eta negozio harremanekiko.
 - Pertsona zintzoak gara emandako zerbitzuei, ditugun ezagutzei eta jasotako esperientziari dagokienez.
 - Halaber, LKS NEXT TALDEA hartutako konpromisoekin arduraz jokutzen duten pertsonak osatzen dute, eta lankidetzako eta konfiantzazko jarrera irekia dugu.

2.- LKS NEXT TALDEA osatzen dugunok LKS NEXT TALDEAREN kulturaren ezarritako Balioak eta Jokabide Kode honetako Printzipio Etikoak aplikatzen ditugu geure buruarentzat eta gainerakoentzat, eta ez dugu gure jardueraren profesionala agindutakoak ez diren helburuak lortzeko egiten.

■ 2.2. Kudeaketa bikaina

LKS NEXT TALDEKO kideok emandako zerbitzuaren kudeaketa bikainean oinarritzen ditugu gure jardueraren guztiak:

- Kalitatezko zerbitzua eskaintzen dugu, espezializazioa eta baliabideen, esperientziaren eta ezagutzearen irismena bateratuz, bezeroen premiei eta arazoei aurre egiten laguntzeko.
- Zerbitzuaren baldintzak, hala nola irismena, ekintza plana, epeak eta abar, aldeztuak diren adosten dira bezeroarekin.
- Bezeroengan eta beste alderdi interesdunengan eragin garrantzitsua duten emaitzak lortzen ditugu.
- Berrikuntza teknika onenak aplikatzen ditugu, helburuak betetzeko eta soluzioetan balioa sortzeko.

■ 2.3. Errespetua legezketasunari eta LKS NEXT TALDEA lotzen duten barneko arau eta kontratuei

1.- Gure jardueraren profesionalak indarrean dagoen legezketasuna eta enpresa lotzen duten barneko arauak eta kontratuak errespetatuz garatzen ditugu LKS NEXT TALDEA aritzen den lurralde guztietan.

2.- Kode hau eta LKS NEXT TALDEAREN Compliance Programa osatzen duten Kontrolak bete behar ditugu.

3.- LKS NEXT TALDEAK hirugarrenetara kontratu harremanetan bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak errespetatu behar ditugu, bai eta haiek jardueraren profesionala gauzatzen duten herrialdeetako ohiturak eta jardunbide egokiak ere.

4.- LKS NEXT TALDEA lotzen duten legeria, Jokabide Kodea, kontrolak edo kontratuak ez ezagutzeak eta LKS NEXT TALDEAREN barruan ohiko arau haustea dela argudiatzeak ez dute justifikatuko horiek ez betetzea.

5.- Jarduera profesionalen jaso daitezkeen LKS NEXT TALDEA lotzen duten legezkotasunaren, Jokabide Kodearen, Kontrolen edo kontratuen aurkako jarraibideek edo aginduek ez diete erantzukizunik kentzen jarraibide edo agindu horien arabera jokatzeko duten pertsonen.

6.- Zuzendariak eta pertsona taldeak kudeatu edo zuzentzen dituztenek betebeharrak hauek dituzte:

- a) Beren jarduera arloei eragiten dieten legeria, Jokabide Kodea, kontrolak eta kontratuak ongien ezagutzen dituztenak izatea.
- b) LKS NEXT TALDEAREN jokabidearen erreferente izatea.
- c) Beren mende dauden pertsonen LKS NEXT TALDEARI lotutako legeria, Jokabide Kodea, kontrolak eta kontratuak ezagutzeko eta betetzeko aukera emango dioten informazioa eta prestakuntza egokia jasotzen dutela zaintzea eta ziurtatzea.

■ 2.4. Objektibotasuna

LKS NEXT TALDEA osatzen dugunok objektibotasunaren printzipioa dugu gure jarduera profesional guztien oinarri. Eta horretarako:

- Objektiboak gara iritzi profesionala emateko eta aholkularitza eskaintzeko orduan.
- Ez ditugu onartzen beste batzuen aurreiritzi edo eragin desegokiak erantzukizun edo iritzi profesionalak saihesteko.
- Bezeroekin, hornitzaileekin eta lankideekin ditugun harremanetan, prest gaude ikuspuntu desberdinak entzuteko eta ulertzeko. Iritzi eta irizpide desberdintasunak onartzen ditugu, eta modu eraikitzailean eta profesionalen baloratzen ditugu.
- Geure akatsak, mugak eta ahalmenak aitortzen ditugu, autokritika eta iritzien onspena ikasteko eta hobetzeko tresna gisa erabiliz.

■ 2.5. Interes gatazkak

1.- LKS NEXT TALDEKO kideok interes gatazka oro saihestu behar dugu.

2.- Interes gatazka dagoela esango da LKS NEXT TALDEKO pertsona baten interes pertsonalak eta enpresa beraren interesak talka egiten duten, batak besteari eragiten dion edo desitxuratu duen egoeretan. Interes pertsonala egongo da, baldin eta gaiak zuzenean eragiten badio pertsonari edo pertsonarekin zerikusia duen beste bati.

3.- Pertsonari lotutako pertsonatzat joko dira pertsonaren ezkontidea edo antzeko afektibitate harremana duen pertsona; pertsonaren edo ezkontidearen (edo antzeko afektibitate harremana duen pertsonaren) aurrekoak, ondorengoak eta anai-arrebak; bai eta pertsonak berak edo horri lotutako pertsonak kontrol egoera duten edo administrazioko edo zuzendaritzako kargua duten sozietate edo enpresak ere edo, sozietate edo enpresa horietako finantza eta eragiketa arloko erabakietan, zuzenean edo zeharka, eragin garrantzitsua dutenak.

4.- Interes gatazka baten aurrean dagoen pertsonak ahalik eta lasterren jakinaraziko dio hierarkian hurbilen duen nagusiari zein interes gatazkatan dagoen. Interes gatazkarik ba ote dagoen zalantzarik izanez gero, Araudia Betetzeko Batzordeak interpretatu beharko du. Era berean, interes gatazka eragindako pertsonak ez du esku hartuko edo ez du eraginik izango interes gatazkaren eraginpeko erabakietan, ezingo du parte hartu erabaki horiek planteatzen diren bileretan eta ezingo du eskuratu interes gatazka horri dagokion informazio konfidentziala.

■ 2.6. LKS NEXT TALDEAREN irudia eta ospea sustatzea

1.- LKS NEXT TALDEA oso ezaguna da bere esperientzia zabalari esker eta LKS NEXT TALDEAREN kultura osatzen duten balioekin, printzipio etikoekin eta egiten jakitearekin konprometitutako talde tekniko fidagarri eta leialari esker.

2.- Gure esku dagoen guztia egin behar dugu LKS NEXT TALDEAREN irudia eta izen ona zaintzeko gure jarduera profesional guztietan. Halaber, hornitzaileek, bazkideek eta bezeroek irudi eta ospe korporatiboa errespetatu eta modu zuzen eta egokian erabiltzen dituztela zaindiko dugu.

3. PERTSONAK

■ 3.1. Pertsonak errespetatzea

1.- Maila profesional guztietan, elkarrekiko errespetuan, osotasunean, adeitasunean, konfiantzan, lankidetzan eta talde lanean egindako ahaleginean oinarritutako harremanak sustatzen ditugu, lankideen, hierarkiako goragoko pertsonen eta karguko pertsonen arteko errespetuzko lan giroa sustatuz, lan giro positiboa lortzeko asmoz.

2.- Errespetu eta begirunerik ez izatea, iraina, difamazioa, larderia, abusua, jazarpena edo edozein motatako eraso psikologiko, fisiko edo sexuala onartezinak dira, eta ez dira lanean onartuko.

■ 3.2. Haurren lanaren debekua eta adingabeen babesa

Adingabeen babesa LKS NEXT TALDEAREN printzipio etiko bat da, eta berekin du haurren lana ez onartzea. Haurren lana, haien gaitasuna eta duintasuna gutxiesten dituen lana da, eta kaltegarria da haurren garapen fisiko eta psikologikorako.

■ 3.3. Atzeritarren babesa

LKS NEXT TALDEAK bere gain hartzen du atzeritarren babesa, dagokion atzeritartasun araudia betez.

■ 3.4. Aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza

1.- LKS NEXT TALDEAK osorik hartzen du bere gain tratu berdintasunaren printzipioa, era guztietako diskriminazioak baztertuz eta aukera berdintasunean lan egiteko eskubidea aitortuz. Era berean, LKS NEXT TALDEAN ez da onartuko jazarpen edo abusu fisiko, sexual, psikologiko edo hitzezkorik, ez eta bestelako tratu apalgarririk ere.

2.- Era berean, LKS NEXT TALDEAREN printzipio etiko bat da aukera berak eskaintzea lana eskuratzeari eta lanbide sustapenari dagokionez, eta uneoro bermatzea sexuagatik, arrazagatik, sexu orientazioagatik, adinagatik, desgaitasunagatik, gaixotasunagatik, erlijioagatik edo diskriminazio iturri izan daitekeen beste edozein arrazoiengatik diskriminaziorik ez dela sortuko.

3.- LKS NEXT TALDEAK kontziliazioa sustatzen du, helburu pertsonalak eta familiarak helburu profesionalekin uztartzen laguntzen duten politika eta neurrien bidez.

4.- Barneko nahiz kanpoko harremanetan, hizkuntza inklusiboa erabiltzen dugu, emakumeek eta gizonen lan egiten duten eta gizarte osoari zuzentzen zaion kolektiboa garelako erakusten duena.

5.- Horren ondorioz, pertsona guztiok, maila profesional guztietan, elkarrekiko errespetuan, osotasunean, adetasunean, konfiantzan, lankidetzan eta talde lanean egindako ahaleginean oinarritutako harremanak sustatzen ditugu, errespetuzko lan giroa sustatuz, lan giro positiboa lortzeko asmoz.

■ 3.5. Langileen hautaketa etikoa

Kontratazio, hautaketa eta/edo sustapen prozesuetan parte hartzen duten LKS NEXT TALDEKO pertsonen, objektibotasunez jokatzeko dute beren jardueraren eta erabakietan, bete beharreko

lanpostuaren profilarekin eta beharrekin bat datorren profila duten pertsonak identifikatzeko helburuarekin, aukera berdintasuna sustatuz.

■ 3.6. Interkooperazioa eta talde lana

LKS NEXT TALDEKO pertsonen harremanak interkooperazioan eta talde lanean oinarritzen dira. Eta horretarako:

- Taldean lan egiten dugu, baliabideak, jarduerak, emaitzak, arrakastak eta porrotak partekatzen ditugu, ezagutza eta gaitasuna eskaintzen ditugu guztion onerako, eta badakigu zer behar dituen taldeak eta nolako ekarpena egiten diogun.
- Modu aktiboan eta demokratikoan parte hartzen dugu proiektuaren garapenean, bai gizarte eta lan jardueretan, bai bezeroari zuzendutako jardueretan.
- Talde desberdinetatik ekarpenak egiten ditugu eta elkarlanean aritzen gara, elkar ezagutzea, sinergiak, integrazioa eta proiektu komuna indartzea sustatuz.
- Zintotasunez eta arduraz jokatzeko dugu, arazoak eta gatazka azaleratuz, sentimenduak eta pentsamenduak zintotasunez adieraziz eta arazoaren ebazpenean inplikatur.
- Bada elkarrekiko konfiantza, errespetua, laguntza eta eskakizunetan oinarritutako lan testuinguru bat.
- Pertsonen eta taldeen lorpenak, ahaleginak eta portaerak baloratu eta aitortzen ditugu.

■ 3.7. Talentuaren kudeaketa

1.- LKS NEXT TALDEAK talentua kudeatzeko eredu bat du, pertsonen garapen profesionalerako egitura bat eta erreferentzia esparru bat ematen dituen. Talentua kudeatzeko eredu tresna gardena da (erraza, ulergarria, ezaguna, ulergarria eta partekatua), LKS NEXT TALDEKO pertsona guztien zerbitzura dagoena, eta lanbide karreraren garapenean pertsonaren eta antolakuntzaren arteko erantzukizun partekatua proposatzen duena.

2.- Talentua kudeatzeko ereduaren prozesu nagusietako bat garapenerako elkarriketak dira. Pertsona laguntzailearen eta haren arduradunaren arteko topagunea da; laguntzailearen garapen profesionalari buruz hitz egiten da eta etorkizuneko ekintza planak ezartzen dira.

4. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

1.- Pertsonentzako lan ingurune eroso eta segurua lortzea da LKS NEXT TALDEAREN lehentasunezko helburua, lan baldintzak etengabe hobetzeko. LKS NEXT TALDEAK behar diren jarduketak egiten ditu laneko arriskuen arloan, prebentzioaren eta etengabeko hobekuntzaren ikuspegitik.

2.- LKS NEXT TALDEAK laneko toki eta prozesu seguruak, garbiak eta osasungarriak eskaintzen dizkie pertsoneri.

3.- Pertsoneri behar diren baliabideak ematen zaizkie beren jarduera profesionalean segurtasun eta higijene neurri egokiak izan ditzaten, pertsonen bizitza, osasuna edo osotasun fisikoa arriskuan jarri gabe.

4.- Laneko segurtasun eta osasun arloan aplikatzen diren prebentzio neurriak errespetatzen ditugu beti, LKS NEXT TALDEAK ezarritako baliabideak erabiliz eta taldekideek beren jarduerak segurtasun baldintzetan egiten dituztela ziurtatuz.

5.- LKS NEXT TALDEA bezeroekin lan egiten duten edo haien lekuetara joaten diren pertsonen eta haien zentroetara joaten diren pertsona guztien segurtasun eta osasun arloko arauak betetzeaz arduratzen da.

5. INFORMAZIOAREN KUDEAKETA

■ 5.1. Intimitatearen babesa. Datu pertsonalen erabilera

1.- LKS NEXT TALDEAK pertsonen intimitaterako eskubidea errespetatzen du bere adierazpen guztietan, baita pertsonen Internet bidezko eta gainerako komunikabideen bidezko komunikazio pertsonalak ere. Batez ere, pribatutasuna eta datu pertsonalei buruzko eskubideak errespetatzen ditu.

2.- Horren ondorioz, LKS NEXT TALDEAK konpromisoa hartzen du hura osatzen duten pertsonekin eta ukitutako beste pertsona batzuekin zerikusia duen informazio oro babesteko, eta datu pertsonalak ez zabaltzeko, baldin eta interesdunek baimena ematen ez badute eta legezko betebeharra edo ebazpen judizial edo administratiboak bete behar direnean. Datu pertsonalak ezin izango dira inola ere tratatu legez edo kontratuan aurreikusitako helburuetarako ez bada.

■ 5.2. LKS NEXT TALDEAREN aktibo eta baliabideen erabilera arduratsua

1.- LKS NEXT TALDEAK pertsonen eskura jartzen ditu beren jarduera profesionalean aritzeko behar diren aktiboak eta baliabideak; besteak beste, komunikabideak, baliabide telematikoak, sistema eta ekipamendu informatikoak, baliabide teknologikoak, instalazioak eta LKS NEXT TALDEAREN finantza baliabideak.

2.- LKS NEXT TALDEAREN aktiboak eta baliabideak babestu eta zaindu behar ditugu, LKS NEXT TALDEAREN interesetarako kalteak eragin ditzaketen galera, kalte, lapurreta edo erabilera desegoki ororen aurka.

3.- LKS NEXT TALDEAREN aktibo eta baliabide horiek arduraz erabili behar ditugu, LKS NEXT TALDEAREN arau eta jarraibide ororen arabera, gure jarduera profesionala modu eraginkorrean egin ahal izateko, bai denbora eta bai LKS NEXT TALDEAK jartzen dituen aktibo eta baliabideak errentagarri bihurtuz.

■ 5.3. Segurtasun informatikoaren eta jabetza intelektual eta industrialaren babesa

1.- Aktiboak eta baliabideak oker edo zuhurtzarik gabe erabiltzeak arrisku larria sortzen digu LKS NEXT TALDEARI eta taldea osatzen dugunoi. Horren ondorioz, LKS NEXT TALDEA segurtasun informatikoa babesten saiatzen da, eta debekatu egiten du baimenik gabeko softwarea erabiltzea eta LKS NEXT TALDEAREN ekipamendu informatikoetan software gaiztoa eta dagokien erabilera lizentzia ofizialak estaltzen ez dituen edo LKS NEXT TALDEAREN sistema informatikoen segurtasunerako edozein elementu arriskutsu sartzeko arriskua duten bestelako programa edo aplikazio informatikoak deskargatzea, instalatzea eta erabiltzea.

2.- LKS NEXT TALDEA osatzen dugunok enpresaren jabetza intelektualaren, jabetza industrialaren eta enpresa sekretuen eskubideak errespetatu behar ditugu, proiektuei, prozesuei, teknologiari, "know how" deiturikoari eta, oro har, erakundean sortutako edo garatutako edozein edukiri dagokienez.

3.- Pertsonak beren jarduera profesionala LKS NEXT TALDEAN garatzen duten bitartean sortutako jabetza intelektual, jabetza industrial eta enpresa sekretuak ustiatzeko eskubideak taldearen titulartasunekoak dira.

4.- Halaber, jabetza intelektualaren eta jabetza industrialaren eskubideak errespetatuko dira, bai eta LKS NEXT TALDETIK kanpoko hirugarrenek dituzten enpresa sekretuak ere. Hori dela eta, jabetza intelektualaren, jabetza industrialaren eta enpresa sekretuen eskubideei lotutako

informazioa babesten saiatu behar dugu eta, kasu bakoitzean, eskubide horien legeko titularren lizentziak edo baimenak eskatu behar ditugu.

■ 5.4. Informazio konfidentzialaren tratamendua eta babesa

1.- LKS NEXT TALDEAREN iritziz, informazioa eta ezagutza dira enpresa kudeaketarako aktibo nagusiak eta ezinbestekoak eta, horregatik, babes berezia dute.

2.- LKS NEXT TALDEAK euskarri informatikoan edo beste edozein euskarritan duen informazio ez-publikoa informazio konfidentzialtzat hartuko da, oro har.

3.- Ahalik eta zuhurtasun handienarekin erabili behar dugu informazio konfidentziala, eta hura babesteko behar diren bitartekoak jarriko dira. Informazio horren edukia ezin izango zaie hirugarrenei eman, baldin eta kasu bakoitzean eskumena duen LKS NEXT TALDEKO pertsonak edo organoak berriaz baimena ematen ez badu edo legeko edo epaitegiko errekerimendurik ez badago. Horretarako, LKS NEXT TALDEAN informazioa eta konfidentzialtasuna erabiltzeko dauden barne arau guztiak ezagutu eta bete behar ditugu.

4.- Hirugarrenen informazioa legez lortuko da. Ez dugu onartuko bidegabeki edo legeko jabeei zor zaien konfidentzialtasuna urratuz lortutako informazioa.

5.- Informazio konfidentziala LKS NEXT TALDETIK kanpoko hirugarrenena bada, LKS NEXT TALDEAK hirugarren horiekin dituen konfidentzialtasun akordioak bete behar ditugu.

6.- Helburu horiek lortzeko, segurtasuna sustatzen dugu, LKS NEXT TALDEKO pertsona guztien kontzientziazioaren eta prebentziozko kulturaren bidez, eta informazioaren tipologiari eta bezeroaren ezaugarri espezifikoiei egokitutako segurtasun neurri teknikoak eta antolakuntzakoak ezartzen ditugu. Halaber, segurtasun kultura sustatzen dugu, hornitzaileak barne hartzen dituen segurtasun politika onartuz, eta politika hori betetzen dela zaintzen dugu jarraipena eginez eta neurriak kontrolatuz.

7.- LKS NEXT TALDEAK konpromisoa hartu du segurtasun gorabeherak detektatzeko, berriz gerta ez daitezen behar diren neurriak hartzeko eta gertakariak alderdi interesdunei jakinarazteko.

8.- LKS NEXT TALDEAREKIN lan harreman arrunt edo berezia eteten bada, pertsonen konfidentzialtasun betebeharra mantenduko da, eta pertsona horiek dokumentuak, biltegiatze baliabideak edo gailuak itzuli beharko dituzte, bai eta beren terminal informatikoan gordeta duten eta informazio konfidentzialarekin zerikusia duen informazioa ere.

6. MERKATUAREKIKO ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEEKIKO HARREMANAK

■ 6.1. Egiazkotasuna eta zehaztasuna LKS NEXT TALDEAREN ondarean

1.- LKS NEXT TALDEAREN ekonomia eta finantza arloko informazioak zintzo islatzen du bere ondarea, oro har onartzen diren kontabilitate printzipioen eta aplikatu beharreko finantza arloko informazioari buruzko nazioarteko arauen arabera.

2.- Inork ez du LKS NEXT TALDEAREN erregistroetako eta kontabilitate txostenetako informazioa ezkutatu edo desitxuratuko. Informazio hori egiazkoa eta zehatza izango da.

3.- LKS NEXT TALDEAK merkatuei eta, oro har, gizarteari informazio fidagarria transmititzeko konpromisoa hartu du, LKS NEXT TALDEAREN irudi zehatza osatzeko aukera emango duena.

■ 6.2. Lehia askearen, merkatuaren eta kontsumitzaileen babesa

1.- LKS NEXT TALDEAK lehia askeari kalterik ez egiteko konpromisoa hartu du. LKS NEXT TALDEAK lehiaren defentsari buruzko araudia betetzen du, lehiaren kolusioa, abusua edo murrizketa edo prezioen aldaketa eragiten duen edo eragin dezakeen edozein jokabide saihestuz.

2.- Ez da egingo LKS NEXT TALDEAREN eta ez lehiakideen edo hirugarrenen jardueraren publizitate iruzurti edo iraingarririk.

3.- Jasotzen diren ordainsariek emandako zerbitzuen eta hartutako erantzukizunen balioa adierazten dute.

■ 6.3. Lankidetzaren eta gardentasuna Administrazio Publikoekin

1.- Agintari, erakunde arautzaile eta administrazio publikoekiko harremanak lankidetzaren eta gardentasun printzipioen arabera planteatzen dira.

2.- LKS NEXT TALDEAK Administrazio Publikoen aurrean dituen betebeharrak betetzen ditu, bereziki, Ogasun Publikoarekin eta Gizarte Segurantzarekin zerikusia dutenak, bai eta dirulaguntzak jasotzearekin zerikusia dutenak edo LKS NEXT TALDEA kontratu publikoen esleipendun dutenak ere, aplikatu beharreko administrazio araudiak eskatzen duena betez.

3.- Berariaz debekatuta daude Ogasun Publikoaren, Gizarte Segurantzaren eta antzeko erakundeen kaltetan egiten diren tributu arloko betebeharrak saihesteko edo onurak lortzeko jokabideak.

■ 6.4. Hornitzaile, bazkide eta bezeroekiko harremanak

1.- Hornitzaileak, Bazkideak eta Bezeroak hautatzeko prozesuetan, kalitate, egokitasun, kostu eta jasangarritasun irizpideak aplikatu behar ditugu, eta LKS NEXT TALDEAREN interesen alde jardun behar dugu beti.

2.- Hornitzaileen, Bazkideen eta Bezeroen artean Jokabide Kode hau ezagutzea eta, ahal den neurrian, betetzea sustatuko dugu, bertan dauden Balioak eta Printzipio Etikoak ahalik eta ongien aplikatzeko xedez.

7. USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA

■ 7.1. Ustelkeria pribatuaren eta publikoaren prebentzioa

1.- LKS NEXT TALDEA, onura edo abantailaren bat lortzeko asmoz, LKS NEXT TALDEAZ kanpoko pertsonen borondatean legez kontra eragitearen aurka dago. Ustelkeria edo eroskeria ekintzak berariaz debekatuta daude, legez kanpoko edozein abantaila zuzenean edo zeharka eskaintzea edo agintzea barne, eta baita influentzia trafikoa ere.

2.- Hori dela eta, hornitzaileekiko, bazkideekiko, bezeroekiko eta administrazio publikoekiko harremanetan, partikular, agintari edo funtzionario publiko bat bere inpartzialtasun betebeharrak edo legezko edozein agindu urratzera ez bultzatzeko moduan jokatu behar dugu. Atal honetan ezarritako debekuak kasuan kasuko partikularrekin, agintaritzarekin edo funtzionario publikoarekin familiako edo adiskidetasunezko lotura duten pertsoneri ere aplikatuko zaizkie.

3.- LKS NEXT TALDEAK ez du egingo, bere kabuz edo bitartekarien bidez, alderdi politikoen legez kanpoko finantzaketa eragingo duen dohaintzarik edo ekarpenik, ezta mailegu edo aurrerakin gisa ere.

4.- Oparien helburua LKS NEXT TALDEA markaren irudia sustatzea da. Ezin izango da oparirik, mesederik edo konpentsaziorik onartu, ez dirutan, ez gauzatan, edozein motatakoak direla ere, LKS NEXT TALDEAREN harremanetan legez kontra eragiteko.

5.- Opariak ematea eta onartzea zilegi da, baldin eta balio ekonomiko hutsala edo sinbolikoa badute eta kortesia zeinuei edo ohiko merkataritza arretei erantzuten badiete.

6.- Eskainitako edo jasotako opariek ez badituzte atal honetako eskakizunak betetzen, uko egin beharko zaie edo itzuli egin beharko dira.

7.- Egoera eta kultura jakin batzuetan, fede onez eskainitako opariari uko egiteak sentiberatasunik eza adierazi dezake edo negozio harreman bat kaltetu ere egin dezake. Kasu horietan, oparia LKS NEXT TALDEAREN izenean onartuko da. Hartzailleak berehala jakinaraziko dio bere zuzeneko arduradunari, eta oparia Pertsonen Sailari emango dio. Sail horrek, ordainagiria eman eta LKS NEXT TALDEAREN oparien inbentarioan sartu ondoren, interes sozialeko helburuetarako erabiliko du.

■ 7.2. Kapitalak zuritzearen eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioa

1.- LKS NEXT TALDEAK kapitalak zuritzeari eta terrorismoaren finantzaketari buruz aplikatu beharreko estatuko eta nazioarteko xedapenak beteko ditu.

2.- Bezeroak identifikatzeko, informatzeko eta barne kontrolerako berariaz ezarritako neurriak aplikatuko dira, eta kapitalak zuritzearen edo legez kanpoko edozein jardueraren finantzaketaren aurkako borrokaren ardura duten agintariekin lankidetzan arituko da.

8. INGURUMENAREN BABESA

1.- LKS NEXT TALDEAK konpromiso sendoa hartu du ingurumena babesteko, zaintzeko eta hobetzeko.

2.- Ingurumena zaintzeko konpromiso aktiboa eta arduratsua hartu dugu, legezko eskakizunak errespetatuz eta LKS NEXT TALDEAK bere jardueraren ingurumen inpaktua murrizteko ezarritako gomendio eta prozedurei jarraituz. Ahaleginak egin behar ditugu LKS NEXT TALDEAK eskura jartzen dizkigun instalazio, aktibo eta baliabideen erabilerak ingurumenean duen eragina murrizteko.

9. KODEA APLIKATZEA

■ 9.1. Indarrean sartzea

1.- Jokabide Kode hau indarrean dago LKS NEXT, S.Coop.eko Kontseilu Errektoreak onartu zuenetik, hau da, 2020ko urriaren 2tik, eta indarrean jarraituko du, baldin eta indargabetzeko, berrikusteko, eguneratzeko edo ordeztan duen beste kode bat indarrean sartzeko berariazko akordioak ez badago.

2.- Jokabide Kodea betetzen ez bada, Araudia Betetzeko Batzordeari jakinarazi behar zaio, bera delako Jokabide Kode hau betetzen dela eta behar bezala aplikatzen dela zaindu behar duen organo eskuduna.

■ 9.2. Jokabide Kodearen interpretazioa

1.- Jokabide Kode honen eta Compliance Programa osatzen duen edozein Kontrolen artean desadostasunen bat izanez gero, Jokabide Kodea nagusituko da. Era berean, Kontrolen interpretazioa Jokabide Kode honen izaeraren eta helburuaren arabera egingo da.

2.- Araudia Betetzeko Batzordeari dagokio Jokabide Kodearen edukia interpretatzea. Batzorde horren interpretazio irizpideak nahitaez betebeharrekoak dira hartzaile guztientzat.

3.- Jokabide Kodearen interpretazioari buruzko edozein zalantza Araudia Betetzeko Batzordeak argituko du, Kanal Etikoari jakinarazita.

■ 9.3. Araudia Betetzeko Batzordea

1.- Araudia Betetzeko Batzordea da LKS NEXT TALDEA osatzen duten pertsonen Jokabide Kodean ezarritakoa betetzen dutela bermatzeko ardura duen organoa.

2.- Araudia Betetzeko Batzordeak Betetze Funtzioari dagozkion arlo guztietan du eskumena. Araudia Betetzeko Batzordearen osaera, funtzionamendua, eginkizunak eta gainerako alderdiak batzorde horren erregelamenduan daude araututa.

3.- Araudia Betetzeko Batzordeak Jokabide Kode honen edukia eta LKS NEXT TALDEAREN Compliance Programa osatzen duten kontrolen multzoa prestatu eta proposatu ditu. Kontrol horiek nahitaez bete behar dituzte pertsonen.

■ 9.4. Ez betetzea eta Kanal Etikoari jakinaraztea

1.- Jokabide Kode hau ez betetzea Compliance Programa haustea da, eta lan edo sozietate zehapenak eragin ditzake, ez-betetzeak eragin ditzakeen administrazio edo zigor zehapenen kalterik gabe.

2.- Jokabide Kode hau edo kontrolak ez direla bete jakiten duen pertsona orok zuzenean jakinarazi beharko dio Araudia Betetzeko Zuzendaritzari, Kanal Etikoaren bidez. Ezagutzen den ez-betetzearen berri ez ematea Jokabide Kode honen aurkako arau haustetzat hartuko da.

3.- Legeria, Jokabide Kodea edo hura garatzen duten Kontrolak urratzeari buruzko gertaera edo gorabehera bat ezkutatzea ez da LKS NEXT TALDEAREN intereseko jardueratzat hartuko.

4.- Kanal Etikoari jakinaraztea, modu hauetako batean egin daiteke:

- Posta elektronikoko bat helbide honetara bidaliz: canal.ético@lksnext.com
- Araudia Betetzeko Koordinatzaileari gutun bat bidaliz, LKS NEXT TALDEAREN edozein bulegotara.

5.- Komunikatzaileari Kanal Etikoari egindako komunikazioarekin lotutako aurrerapenen berri emango zaio.

■ 9.5. Komunikazioen konfidentzialtasuna eta errepresalien debekua

1.- LKS NEXT TALDEAK Kanal Etikoari komunikazioak egiten dizkieten pertsonen identitatearen konfidentzialtasuna bermatzen du.

2.- Kanal Etikoarekin zerikusia duten komunikazio eta prozedura guztiak datu pertsonalak babesteko araudiaren eskakizunak errespetatuz kudeatuko dira. Hala ere, Kanal Etikoari komunikazioak egiten dizkieten Pertsonen datuak agintari administratibo edo judizialei eman ahal izango zaizkie, komunikaziotik eratorritako edozein prozeduraren ondorioz haiek eskatzen dituzten neurrian.

3.- Debekatuta dago LKS NEXT TALDEKO pertsona baten aurka inolako neurririk hartzea, baldin eta komunikazio bat egitearen ondoriozko errepresalia edo ondorio negatiboa bada. Komunikazio hori egin duenaren aurkako errepresalia Jokabide Kode honen arau haustetzat hartuko da.

4.- Aurreko paragrafoan aurreikusitako errepresaliak debekatzeak ez du eragotziko bidezko diziplina neurriak hartzea, barne ikerketak komunikazioa faltsua dela eta asmo txarrez egin dela zehazten duenean.

■ 9.6. Komunikazioak izapidetzea

1.- Kanal Etikoaren bidez jasotzen diren komunikazio guztiak erregistratuko dira.

2.- Komunikazio bat jaso ondoren, barne ikerketa bati ekingo zaio, baldin eta komunikazioak funtsa badu edo Jokabide Kodearekin zerikusirik ez duten gaiei buruzkoa ez bada. Kasu horietan, Komunikazio Erregistroan jasoko dira komunikazioa jaso izana eta ikerketarik ez hasteko hartutako erabakia. Erabaki horrek ez du eragotziko gero ikerketa hastea informazio gehigarria jasotzen bada.

3.- Araudia Betetzeko Batzordeak egiten duen barne ikerketan, organo horrek LKS NEXT TALDEKO edozein arlo edo negozioren nahi duen informazio eta dokumentazio guztia eska dezake.

4.- Komunikazioak Araudia Betetzeko Batzordeko kide bati eragiten badio, Batzordeak ezin izango du parte hartu izapidetan, eta aurreko 2.5 atalean aurreikusitako interes gatazkei buruzko arauak aplikatuko dira.

5.- Prozedura hori amaitzeko, Araudia Betetzeko Batzordeak ebazpen bat emango du, Zuzendaritza Kontseiluak edo dagokion organoak onetsiko duen zuzenketa edo proposamena barne hartuko duena. Proposamenak, hala badagokio, dagozkion diziplina neurriak ezarriko ditu, lan legeria eta, bereziki, Langileen Estatutua, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboak eta/edo Barne Erregimeneko Araudia eta LKS NEXT TALDEA osatzen duten pertsonen aplikazioak dakizkiekeen gizarte eta lan arloko beste edozein arau aplikatuz. Hori guztia, egon daitezkeen administrazio zehapenen edo zehapen penalen kalterik gabe.

LKS
Next